

DEBAko UDALA

ALKATETZA DEKRETUA

GAIA: igeltseritzako ofiziala edota zenbait eginkizunetarako langileen (balio anitzekoa) lan poltsa. Behin betiko emaitza.

Aurrekariak

Debako Udalak igeltseritzako ofiziala edota zenbait eginkizunetarako langileen (balio anitzekoa) lan poltsa eratu nahi du, suertatu ahal diren aldi baterako beharrak betetzeko, behar horren arrazoia edozein dela ere: Udaldia, ordezkapenak edo beste edozein arrazoi.

Udalak, lehiaketaren oinarriak onartu zituen eta deialdia egin zuen (2017ko ekainaren 30eko GAO).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta aurkeztutako eskabideak eta agiriak aztertu ondoren, uztailaren 19ko alkatetza Dekretu bidez, prozesuan parte hartzeko onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda eta baztertzea eragin zuten arrazoiak zehaztu ziren eta erreklamaziorako epea eman zen.

Emandako epean erreklamaziorik aurkeztu ez zenez, behin-behineko zerrenda behin betikotzat jo zen.

Halaber, uztailaren 19ko alkatetza Dekretu horren bidez, euskara ariketa egiteko deia egin zen.

Uztailaren 21ean euskara proba egin zen eta emaitzak argitaratu ondoren emandako epean ez zen erreklamaziorik aurkeztu.


Merituen balorazioa egin ondoren, 2017ko abuztuaren 31ko alkatetza Dekretu bidez lan poltsaren behin behineko emaitza onartu zen eta erreklamaziorako epea eman zen.

Emandako epean ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Horiek horrela eta deialdiaren oinarriek adierazten dutenari jarraiki, honako hau

ERABAKI DUT

Lehenengo.- Igeltseritzako ofiziala edota zenbait eginkizunetarako langileen (balio anitzekoa) lan poltsaren behin betiko emaitza onartzea:



DEBAko UDALA

ordena	NAN	PUNTUAK	EUSKERA	C-GIDABA IMENA
1	72453486J	61,8	1 HE	
2	15388488Q	57,75	2 HE	BAI
3	35775240M	55,6	2 HE	
4	72452214Y	52,15	2 HE	BAI
5	44158842S	47,25	2 HE	
6	15359668S	45,05	2 HE	
7	34095698S	44,9	2 HE	BAI
8	44161621B	35,3	2 HE	
9	72578633V	27,5	2 HE	BAI
10	72478462B	22,1	3HE	BAI
11	X5284463Y	22	1 HE	
12	72434144Z	13,75	2 HE	
13	72460505V	11,1	1 HE	

Bigarren.- Erabaki hau Debako Udaleko Web orrialdean eta iragarkien taulan argitaratu ematea.

Deba, 2017ko irailaren 7a.

ALKATEAK,

Iz.: PEDRO BENGOETXEA LOIOLA



Ebazpenaren aurka jotzeko bideak

Administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko **auzi-errekurtsoa** aurkez dezakezu EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako **epaitegi egokian bi hilabeteko epean**, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, **nahi izanez gero**, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, **berraztertze errekurtsoa** aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari **hilabeteko epean**, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.